

BERRIA-KO LANGILE BATZORDEAREN ETA BERRIA TALDEAREN OHARRA:

2018ko urriaren 9an, Onintza Enbeita BERRIAko kolaboratzaileak iritzi artikulua bat argitaratu zuen kazeta honetan, Bira-n egunero egin ohi duen gisara. Azken orduetan, ordea, eta Enbeita Algortako bertso saio batera gonbidatu dutela-eta, pintaketak, pankartak eta sare sozialetan mezu iraingarriak zabaldu dira Enbeitak urriaren 9an argitaratutako zutabearen harira. Gainera, ez da lehen aldia Enbeitak gisa horretako erasoak jasan dituen artikulua hori idatzi ondoren.

Hori horrela, BERRIAko Langile Batzordeak eta Berrria Taldeak honakoa adierazi nahi dute:

1. Babes eta elkartasun osoa adierazi nahi diote gure kolaboratzaileari, Onintza Enbeitari.
2. BERRIAko langileek adierazpen askatasunaren alde duten konpromisoa agertu nahi dute.
3. Begi onez hartzen dute iritziak eztabaidatzea, argudiatzea, kontrargudiatzea, desadostasunak plazaratzea. Baina, gauza bat da iritzi horren aurka jotzea, argudioekin; eta oso bestelako bat, aitzakia hori baliatuta pertsonen aurka jotzea. Langile Batzordeari eta Berrria Taldeari, BERRIAko langileen izenean, onartezina iruditzen zaie gertatu dena".
4. Eraso horrek, adierazpen askatasunaren eta argudio bidezko eztabaidaren kontrakoa izateaz gainera, karga sexista nabarmena du.